

PANDEMIA IRAGAN ETA GERO, DONOSTIAK BERE ERRITMOA BERRESKURATU DU

Donostiako Sustapenaren Hiri-Barometroak agerian utzi du susperraldi bat izan dela, datu nagusiei dagokienez, COVIDak eragindako osasun-krisiaren etaparik gogorrena iragan eta gero.

Sustapen Ekonomikoko zinegotziak, Marisol Garmendiak, azpimarratu du «pandemiaren inpaktua oztopo handia izan zela mundu erdiko egoeran, baina Donostiako osasun onari eta sendotasunari esker, susperraldi progresiboa izan da, gure hirian, ekonomiari eta enpleguari dagokienez, eta horrek hurrengo urteetarako joera positiboa markatzen du».

ENPLEGUAREN BILAKAERA

2022ko azaroko datuen arabera, Donostiak Estatu osoko tasarik txikiena izaten jarraitzen du: biztanleria aktiboaren %7,8 du; tasa hori %8,2koa da Gipuzkoan eta %10,3koa Euskadin.

Gipuzkoako hiriburuan 6.956 langabe daude; horietatik 3.868 emakumeak dira eta 3.088 gizonak. Nabarmenezkoa da emakume langabeek ia puntu bat egin dutela behera aurreko hilabetearen aldean, eta gizon langabeek, berriz, %0,7 egin dutela gora.

Datuen arabera, Donostia pandemiaren aurreko garaian bezala dago ia. 2019ko azaroan, langabetuen kopurua 7.291 izan zen, eta orain 7.000 baino gutxiago dira.

Emakumeen langabezia-tasa %8,5 da eta gizonena %7,1; beraz, genero-arrakala (%1,4) kontuan hartu beharreko faktorea da oraindik ere. Langabezia handiagoa da, gaur egun ere, 45 urtetik gorakoetan, eta batez ere 54 urtetik gorakoetan. Adin-tarte guztietan langabezia handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Azaroko errekorra nabarmendu behar da, Gizarte Segurantzako afiliatuei dagokienez: 122.665 pertsona, urrian baino %1,1 gehiago. 3.142 pertsonak jasotzen dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta Donostian, eta horietatik %58,6 emakumeak dira.

2021eko Barometrora itzuliz, errenta pertsonal erabilgarria hilean 26.395 eurokoa izan zen Donostian, EAEko hiriburuetakoa handiena, Gipuzkoako errenta %12 gaituz eta Euskadikoa, %18. Hiria seigarren postuan dago biztanle bakoitzeko errenta erabilgarriak handiena duten 75.000 biztanletik

Prentsa oharra

Nota de prensa



gorako hirien rankingean. Haren aurretik daude Pozuelo de Alarcón, Sant Cugat del Vallés, Las Rozas, Getxo eta Alcobendas.

Errenta pertsonalik txikiena Altza auzoan dago (17.939 euro pertsonako) eta altuena, Miramon/Zorroagan (40.000 euro, batez beste).

2021. urtearen amaieran, etxebizitzaren batez besteko prezioa 4.970 eurokoa izan zen metro koadroko, EAEko batez bestekoaren ia bikoitza eta hiru hiriburuetakoa garestiena.

ZERBITZUEN HIRIA

2021eko Barometroaren erradiografiak Donostiaren profila zerbitzu-hiri batekoa dela erakusten du; enpresa-dentsitatea 1.000 biztanleko 83 enpresakoa da, Sevilla (75) edo Málaga (73) bezalako hirien gainetik.

Zerbitzuen sektorea Udalaren Barne-Produktu Gordinaren %89 da --hau da, %4,5eko igoera izan da 2020. urtearekin alderatuta--, eta 2021ean sortutako enpleguaren %84.

Donostiako BPGa, 2021ean, Gipuzkoako eta Euskadiko gainerako herrien azpitik hazi zen, eta guztira 7.701 milioi euro sortu zituen, hau da, Lurralde Historiko osoaren %30.

Guztira, 15.640 enpresa zenbatu ziren hirian 2021ean, 18.361 establezimendutan banatuta. Gehienek bost pertsona baino gutxiagori ematen diete lana, eta hiriko enpleguaren %26 osatzen dute. 50 langiletik gorakoak establezimenduen %1,4 dira, hau da, Donostiako enpleguaren %43.

Zerbitzuen sektorean, «ezagutza-zerbitzu intentsiboak» deiturikoak nabarmentzen dira (aholkularitza, ikerketa, informatika, ingeniari, diseinua, telekomunikazioak, etab.), eta enpleguaren %34,5 dira. Merkataritzak eta ostalaritzak enpleguaren %20,1 osatzen dute. Gainerakoa beste zerbitzu operatibo batzuek osatzen dituzte (garraioa, alokairuak, bidaia-agentziak, turismo-operadoreak, garbiketa-zerbitzuak, konponketa, etab.).

Zerbitzu aurreratuen artean, osasungintza (1.442 establezimendu eta 10.994 enplegu) eta hezkuntza (827 establezimendu eta 9.140 enplegu) nabarmentzen dira.

I+Gko inbertsioa, zientzia medikoen eremuan, %17,2koa izan zen 2021ean, EAEko batezbestekoa baino 5,6 puntu handiagoa.

Prentsa oharra

Nota de prensa



MERKATARITZA

2021ean, Donostian 2.512 saltoki txiki izan ziren, eta elikadurakoak izan ziren ugarienak, 749 establezimendurekin; ondoren, moda eta osagarriak (600), etxeko ekipamendua (288), drogeria, lurringintza eta farmazia (184), eta elektronikak eta komunikazioak (106).

Merkataritzak **8.658 pertsonari** eman zien lana, hiriko enplegu osoaren %9 izanik.

Ostalaritzan, tabernetan eta jatetxeetan, 1.151 establezimendu izan ziren, eta, bestalde, 267 ostatu. Guztira, 8.194 enplegu, Donostiako guztizkoaren %17,5. Ostalaritzak, oro har, 6.468 enplegu eman zituen, eta ostatuek, 1.726.

Hau da, merkataritzak eta ostalaritza-ostatuek **16.852 pertsonari** eman zieten lana, Donostian, 2021ean. Nabarmentzekoa da ostalaritzan azken urteetan atzematen ari den enpleguaren hazkundera (+%35 hamarkada batean). Aitzitik, merkataritzak gogorago nabaritu zituen pandemiaren ondorioak, Euskadiko gainerako lekuetan, Espainian eta maila globalean gertatu zen bezala. COVID-19aren krisiak, txikizkako merkataritza-sektorearen egiturazko zailtasunekin batera, Donostiako merkataritza-fatxada %15 murriztea eragin du azken hamarkadan. Kontuan izan behar da hiriko merkataritza-lokal baten hileko batez besteko errenta, 2021ean, pandemia-garaian, 16,2 eurokoa izan zela metro koadroko, hau da, Bilbokoa (13,9) baino altuagoa eta Gasteizkoa (7,8) baino askoz ere altuagoa.

Auzoen arabera, Erdialdeak ditu establezimendu gehien (945); ondoren Gros dator (428) eta, gero, Amara Berri (301). Ranking berak ostalaritzarako ere balio du, Erdialdean hiriko eskaintzaren %45 izanik, ondoren Grosen (%16) eta, gero, Amara Berrin (%9,7).

JARDUERA EKINTZAILEA

2021ean 935 enpresa berri sortu ziren Donostian, 2020an sortutakoen %24. Bajak 1.534 izan ziren, aurreko urtean baino gutxiago.

ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA

Hiria azken urteotan egiten ari den inbertsio-ahalegina bereziki esanguratsua da, eta %10 handitu da 2020 eta 2021 artean.

6.000 pertsona inguruk egiten dute lan sektore horretan, I+Gra bideratutako euskal enpleguaren %20. Emakumeak %46,5 dira.

Prentsa oharra

Nota de prensa



2021ean, jarduera horiek sortutako inbertsioa 277 milioi eurokoa izan zen, azken urteetako progresioari eutsiz.

- 2017 225.991
- 2018 240.945
- 2019 240.758
- 2020 252.111
- 2021 277.230

Horrek esan nahi du I+Gn egindako inbertsioa 1.476 eurokoa dela biztanleko, hau da, Euskadiko batez bestekoa (751 euro biztanleko) halako bi.

Hori Donostiako BPGren %3,6 da, batez beste Euskadikoa (%2,1) baino handiagoa, baita Europar Batasunekoa baino handiagoa ere (%2,3). Hala, Donostia I+Gn apusturik handiena egin duten herrialdeen rankingean Suedia eta AEB (%3,5), Belgika (%3,4) edo Japonia (%3,3) baino gorago dago.

I+Gko enpresa-parkea lkerketa eta Garapeneko 98 establezimenduk osatzen dute; horietatik 46 natur zientzien eta zientzia teknikoen arlokoak dira, 29 bioteknologiakoak eta 23 gizarte-zientzietakoak eta humanitateetakoak.

HIRIAREN DATUAK

Donostian, 2021eko Barometroaren arabera, 187.850 biztanle zeuden; horietatik 99.060 emakumeak ziren (%52,7) eta 88.790 gizonak (%47,3). Argi dago biztanle kopuruaren hazkundera gelditu egin dela, eta biztanleria nabarmen zahartzen ari dela. Izan ere, zahartze-tasa donostiarren %25 da, eta Europako batez bestekoa, berriz, %20,8. Biztanleriaren batez besteko adina 46,5 urtekoa da, eta 35 urtekoa, migratzaileen kolektiboan. Kontuan hartu behar da jaiotza-tasa %25 jaitsi dela azken bost urteetan.

Auzoen arabera, Amara Berri da biztanle gehien dituen (30.377) eta gutxien, Landarbaso (15 biztanle). Migratzaileak biztanleriaren %8,7 dira, 16.277 guztira, eta %25eko hazkundera izan dute azken hamarkadan. Honduras, Nikaragua eta Marokotik datoz migratzaile gehienak. Erdialdea eta Altza dira beste herrialde batzuetatik etorritako biztanle gehien dituzten auzoak.

Turismoari dagokionez, 2021ean, 550.000 turista etorri ziren Donostiara, agerian utziz susperraldia izan zela, pandemia-urteekin alderatuta, baina ez ginen iritsi osasun-krisiaren aurreko urteetako zifretara. Batez ere, frantziarrek (%38), alemaniarrek (%10) eta holandarrek (%7) bisitatu gintuzten; ondoren, britainiarrek (%5,1) eta estatubatuarrek (%4,6). Nazionalei dagokienez, katalanak dira, oraindik ere, gehien bisitatzen gaituztenak (%18,9); ondoren madrildarrak (%15,2) eta valentziarrak (%8,8).

Prentsa oharra

Nota de prensa



Ikasle-kopurua 53.806 da, eta, horietatik, erdiak (25.277 ikasle) Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan daude; Lanbide Heziketakoak, berriz, 5.764 ikasle dira, hiriko 17 ikastetxetan banatuak; 14.000k unibertsitateetan ikasten dute, eta 4.000k adar berezietako ikastetxeetan.